

Bere Maiestatearen Gabonetako mezua

Zarzuela jauregia. Madril, 2013ko abenduak 24

Gabon.

Aurtengo Gabonetan bihotzez zoriondu nahi zaituztet, Urte Berri zoriontsua opa dizuet eta zuekin partekatu nahi ditut bukatzeaz dagoen urteari buruzko nire gogoetak eta gure etorkizun bateratuaren inguruan ditudan usteak.

Oraindik ere krisi ekonomiko eta finantzarioaren ondorioak pairatzen ari da Espainia. Europar Batasuneko historia hurbilean ezagutu den luzeena eta larriena da, eta ondorio oso negatiboak izaten ari da pertsonen, familien eta enpresen gainean.

Horregatik, hain zuzen, hitzaldia hasi nahi dut txerazko agurra bidaliz krisiaren ondorioak gehien pairatzen ari direnei: bukatzeaz dagoen urtean zehar lana aurkitu ez duzuei edo zuena galdu duzuei; arrazoi desberdinak direla eta etxebizitza ez duzuei; zuen bizitza profesionala oraindik bideratu ezin izan duzuen gazteei; kemenaz neke handiak jasan dituzuen guztiei eta ahalegin handiz zuen legezko helburua lortzeko borrokatzen duzuei.

Halaber, zailtasunak gainditze aldera zuen sormen eta talentuarekin ekarpenak egiten dituzuei agurtu nahi zaituztet. Bereziki pentsatzen dut ekintzaileengan; Nazioko joera ekoizlea mantentzen duten enpresa txiki eta ertainengan; langile autonomoengan; immigranteengan, erreserbarik gabe eskertu beharreko ekarpena egiten baitute; zerbitzari publikoengan; Espainiatik kanpo lanean ari zaretenengan.

Baita zuengan ere, pertsona adindunak, pentsiodunak, familia-ekonomia askoren euskarria baitzarete. Eskerrik asko zuen laguntzagatik. Oso berezia da Espainian familiek duten indarra, eta oinarrizkoa da krisi larri honetan egiten ari diren lana. Esker ona baita ere gizarte zibilari, solidaritate benetan eredugarria erakutsi baitu zailtasun larriak bizi izan dituzten milioika pertsoneri laguntza emateko. Azken finean, eskerrik asko biztanle guztiei, hain zailak zaizkigun garaietan ere izan duzuen ereduazko erantzukizunagatik eta gizatasunagatik.

Oroipen berezi eta hunkigarria ere egin nahi dut terrorismoaren biktimen alde. Gizarteak esker oneko zor iraunkorra du oraindik haiekiko. Zenbait hamarkadatan zehar kriminal totalitario batzuen indarkeria eta ikara krudelki sufritu duten pertsonak eta familiak. Badakit momentu nahiko zailak bizitzen ari zaretela.

Lehen eta beti bezala, solidaritate berrituarekin batzen naiz gaur zuen minera, eta nire laguntza eskaintzen dizuet.

Argi dago Espainiak pairatzen duen krisi ekonomikoaren ondorioz biztanleak etsitzen hasi direla, eta bai konponbide azkarrak aurkitzeko zailtasunak bai bizitza publikoan gertatu diren eredugarritasun ezeko kasuek eragina izan dutela politikaren eta instituzioen prestigioan.

Jakin badakit Espainiako gizarteak jarrera aldaketa sakona eskatzen duela gaur, baita konpromiso etikoa ere politika, ekonomia eta gizarteko esparru guztietan, demokrazia bateko nahitaezko eskakizunak aseko dituztenak. Egia da gure gizartean badaudela bizikidetasuneko hitzarmenak eguneratzearen alde egiten duten ahotsak.

Ziur nago gai guzti horiek konpondu ahalko direla, errealismoz, ahaleginez, Zuzenbide-estatuaren jardute egokiarekin eta indar politiko eta sozial ordezkarien eskuzabaltasunarekin.

Errealismoa behar da aintzatesteko gizarte baten osasun morala biztanleen jarrera etikoaren mailak definitzen duela, eta hori buruzagiekin hasten da, izan ere denok gara etorkizun kolektiboaren erantzule.

Ahalegina, ekonomian ikusten hasi garen hobekuntza-joeraren adierazleak egiaztatzeko, oraindik ere sendagoak izan behar diren arren. Ezin baitugu normaltzat hartu Espainian lan egin ezin duten milioika pertsonen larritasuna. Nire ustez, langabezian dauden biztanleek lan egiteko aukera dutenean hasiko da krisia konpontzen.

Zuzenbide-estatuaren jardute egokia, instituzioetan eredugarritasuna nagusitu dadin, Konstituzioa eta legeak bete eta betearazi daitezen eta desberdintasunak edota eztabaidak guztiok onartu ditugun arau demokratikoen arabera konpon daitezen. Arau horiek errespetatzean, gure bizikidetasuna eta demokraziaren sendotasuna bermatzen ditugu. Ezin ukatu daitekeen eta kontuan izan beharreko egia da hori.

Eta, beti bezala, eskuzabaltasuna, behar denean amore emateko, besteen arazoak ulertzeko eta hizketa metodo nagusia eta eraginkorra izan dadin arazo kolektiboak konpontzeko.

Nire karguari esker, Espainiak bizi izan dituen gorabehera anitz ezagutu ditut, eta nire bizitza eman diot herrialdeari. Momentu zailak eta onak ikusi ditut, eta Espainiako biztanleok beti jakin izan dugu egoera zailetatik elkarrekin irteten eta guztiok batera momentu onak eraikitzen.

Esperientzia horrekin esan dezaket 1978ko Konstituzioarekin jaio zen sistema politikoak gure historiako garai oparoena ekarri digula askatasunari, bizikidetzari eta oparotasunari dagokienez, eta hari esker ere aintzatesten dela gure errealitatea osatzen duen dibertsitatea. Hori gogoan izatea komeni da, izan ere ideia hori alde batera uztea edo ahaztea nahi da batzuetan, gure gizartearen edo instituzioen ustezko gainbehera aldarrikatzen denean.

Oraintxe aipatu dudan bezala, lorpen historiko hori erreibindikatzeak ez du eragozten onartzea gure demokraziaren kalitatea zentzu askotan hobetu behar dela.

Modernizazio eta birsorkuntza lan garrantzitsua ez dagokie arduradun politikoei soilik. Agente ekonomiko eta sozialen ardura ere bada, eta baita gizartearena bere osotasunean ere, bere antolaketa egituren bitartez.

Urte askotan zehar gure demokrazia eraikitze bidean elkarrekin ibili gara; egun bizi ditugunak baino errazagoak ez ziren arazoak konpondu ditugu denok batera, beti xede komun bat atzitzeko.

Horiek horrela, elkarrekin jarraitu behar dugu gure etorkizuna eraikitzen, gauza asko baitaude lotzen gaituztenak eta lotzen jarraitu behar gaituztenak:

Etorkizun sendoa, bidezkoa eta aukeraz betea bermatzeko nahiak lotzen gaitu.

Adiskidetasun eta harreman historikoen indarrak lotzen gaitu, hala nola partekatzen ditugun kulturek, gure hizkuntzen bizikidetasunak eta desberdinak direnak onartzeko dugun jarrerak.

Kultura eta sentikortasun desberdinak dituen herrialde dibertsifikatuaren aberastasunak lotzen gaitu.

Arazo larrien, lurraldeko edo gizarteko berdintasunik ezaren eta gure auzokoen beharren aurrean erakusten dugun solidaritateak lotzen gaitu.

Eta duela gutxi Asturiasko Printzeak aipatu zuen bezala, erkidego bat izatearen sentimenduak lotzen gaitu eta hala jarraitu behar du izaten: Espainia Nazio handia da eta merezi du hura bizitzea eta maitatzea, baita haren alde borrokatzea ere.

Koroak nazio eredu hori sustatu eta bihotz ematen du. Bere dibertsitatearen barruan librea, bidezkoa eta bateratua den herrialdean sinesten du. Denontzako lekua duen Espainia ireki horretan sinesten du. Eta uste du Espainia hori dela, denon artean eraikitzen jarraitu behar duguna, hain zuzen.

Hori dela eta, indar politikoak animatzen ditut haien arteko desberdintasunak konpontzera, beren ideiak alde batera utzi gabe, guztion onurarako hitzarmenak lortze aldera. Horien bitartez lortuko dugu beharrezkoak diren erreformak egitea oparotasunean, justizian eta guztiontzako aukera-berdintasunean oinarritutako etorkizuna eraikitze.

Buru politikoak eta agente sozialak animatzen ditut haien lidergoa erabiltzeko eta konformismoari, etsipenari eta biktimismoari aurre egiteko.

Komunitate intelektuala animatzen dut gertatzen ari diren aldaketak interpretatzera, eta esparru geopolitiko, ekonomiko, sozial eta kulturalean sortzen ari den mundu berriaren gidari izatera.

Instituzio publikoak, enpresariak eta inbertitzaileak animatzen ditut ikerketa eta berrikuntzarekiko apustua egitera, lehiakortasuna hobetzeko eta lanpostuak sortzeko.

Halaber, zuek guztiak animatzen zaituztet konfiantza berreskuratzeraz, bai zuengan duzuenaz bai espainiar gisa ditugun ametsak egi bihurtzeko dugun ahalmenaren gainekoa.

Gaur mezu hau bidaltzean, honakoa transmititu nahi dizuet Espainiako Errege gisa:

Lehenik eta behin, bizikidetasun hiritarra sustatzen jarraituko dudala, agintaldian leialtasunez ekinez eta ordena konstituzionalaren arabera ditudan eskumenak erabiliz, gure gizartearen bilakaera bultzatu duten printzipio eta balioak mantenduz.

Bigarrenez, gure gizarteak eskatzen dituen eredugarritasun eta gardentasun eskakizunak nire gain hartzen ditudala.

Azkenik, agurtzeko, urtean zehar jaso ditudan kemenaz beteriko mezu zintzoak eskertu nahi ditut. Gabon-gaua familiarekin elkartzeko aukera izatea espero dut eta 2014an guztion itxaropenak bete daitezela.

Berriz ere, Gabon zoriontsuak eta gabon.